

HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO ESPEZIALISTEN DESTINOAK ADJUDIKATZEKO
JARRAIBIDEAK, IKASTETXEETAN 2022-2023 IKASTURTERAKO ALDI
BATERAKO KONTRATAZIOAN LEHENTASUNA DUTENEI DAGOZKIENAK

Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariak abenduaren 31ko 814/2010 Foru Agindua eman zuen, aldi baterako kontratazioa kudeatzeko arauak onesteko. Haren 12. artikuluan ezartzen da, baldintza batzuk beteta, lan-kontratudunek dutela lehentasuna egun kontratatuak dauden zentro berean zerbitzuak ematen jarraitzeko.

2022-2023 ikasturterako ikastetxeetan behar diren zaintzaileen plantillari buruzko proposamena aztertu ondoren, ikusten bada 2021-2022 ikasturtean dagoeneko zaintzaileak kontratatuak zituzten ikastetxeetan beharrak bere horretan jarraitzen duela, kontratu horien titularrek arestian aipaturiko artikuluan ezarritako lehentasuna gauzatu dezakete.

Kontratua indarrean dutenek, kontratu hori beranduenez ere 2022ko abuztuaren 31n bukatzen bada eta destinoa ikastetxe batean badute, balia dezakete ikastetxe berean kontratatuak izateko lehentasuna; 2022ko irailaren 1ean hasiko da kontratua.

Aurreikusia dago ekainean egitea kontratazioan lehentasuna gauzatzeko deialdia, eta horretan ez zaie deituko abuztuaren 31 baino lehen amaitu daitekeen ordezkapen-kontratua duten pertsoneri; beraz, horiek ez dute eskubiderik izanen ikastetxean kontrataziorako lehentasuna baliatzeko.

Baldin eta ekainean hautaketa egiteko deia jasotzen ez duten pertsona horiek Hezkuntza Departamentuaren hezkuntza-laguntzako espezialista izateko kontratu bat izaten jarraitzen badute eta abuztuan oraindik premiak badaude, abuztuan, hilaren 10ean edo egun horretatik aurrera, kontratazio berri bat eginen da lehentasuna baliatzeko, hautaketa orokorrerako deialdia argitaratu aurretik.

Prozeduraren web-fitxan, informazio hau argitaratuko da:

- I. ERANSKINA, lehentasunez kontratatuak izateko eskubidea duten pertsonen zerrenda, 2021-2022 ikasturtean izan duten destinoko ikastetxea adierazten duena
- II. ERANSKINA, lehentasunez kontratatuak izateko eskubidea duten pertsonen zerrenda, kontratazio-zerrendetako puntuazioaren arabera ordenatua.
- III. ERANSKINA, lehentasuna balia daitekeen ikastetxeetan eskaintzen diren lanpostuen zerrenda.
- IV. ERANSKINA, lehentasunari lotuta ez dauden lanpostuen zerrenda (beste ikastetxe batzuetan eskaintzen diren lanpostuak).

PARTE-HARTZE SISTEMA, HAUTAKETA ETA LANPOSTUEN ADJUDIKAZIOA

Kontrataziorako lehenetasuna baliatzeko prozedura tramitazio telematikoaren bidez egingen da; beraz, nahitaezkoa izanen da parte hartzeko eskabidea **Erregistro Orokor Elektronikoaren bidez** aurkeztea. Botoi espezifiko bat gaituko da edukiak argitaratzeko erabiltzen den web-fitxan.

Eskabidearekin, baieztatu egiten da kontrataziorako 15 eguneko lehenetasuna baliatu nahi dela. Gainera, eskatzaileak lanpostuak ordena batean jarri behar ditu, baldin eta ikastetxe batean lanpostu bat baino gehiago eskaintzen bada.

Adjudikazioaren ebazpena izanen da eskatzaileak kontratazio-zerrendetan duen posizioaren arabera eta parte hartzeko eskabidean zehazten duen lanpostuen ordenaren arabera.

Gainera, zenbait izangai kontratazio-zerrendetan 814/2010 Foru Aginduaren 9.1 artikuluan arautzen den baldintzarekin agertzen badira eta Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak erabaki badu lanposturako mugak dituztela, Aldi Baterako Langileak Kudeatzeko Zerbitzuak eskabidean eskatzen dituzten lanpostu guztiak aztertuko ditu, eta, ebazterakoan, lanpostu bat kontuan hartuko du, baldin eta izangaia behar hori betetzeko gai bada.

Ikastetxe batean lanpostu baino izangai gehiago balego, lehenetasuna baliatzeko eskabidea aurkezten duten pertsonak, kontratazio-zerrendan duten posizioagatik lanposturik adjudikatzen ez bazaie, kontrataziorako izangaien zerrendan "libre" gisa azalduko dira eta ondoko eskaintzak hautatzen ahalko dituzte.

814/2010 Foru Aginduaren 10. artikulua ezartzen duen arabera, 15 eguneko lehenetasunaren arabera adjudikazio-prozeduran, jakinarazten da ezen, parte hartzen dutenen artean norbait indarrean dagoen kontratazio-zerrendan lanaldi "osoak bakarrik" aukeran egon arren, baldin eta parte hartzeko eskabidean lanaldi partzialeko plazak markatzen baditu eta kontratu baten adjudikaziodun gertatzen bada, ondorengo deialdietarako agertuko dela lanaldi partzialeko lanpostuetarako kontratazio-zerrendan.

Ulertuko da parte-hartzeko eskabiderik **aurkezten ez** duten pertsonak **uko egiten diotela lehenetasuna baliatzeari**, eta, beraz, kontratazio-zerrendetan "libre" agertuko dira, ondoren, kontratazio orokorreko prozeduran eskaintzen diren lanpostuak hautatu ahal izateko.

Ekainean kontrataziorako lehenetasuna baliatzeko egingen den deialdian parte hartzeari uko egiten diotenen lehenetasun horri uko egingen diote, eta, beraz, ezin izanen dute baliatu abuztuan, kontratazio orokorrerako deialdia baino lehen, kontratuak lehenetasunez esleitzeko egingen den prozesuan.

Lehenetasunez kontratatzeko deialdian parte hartzerakoan, norbaitek eskaintakoak baino plaza gutxiago jartzen baditu eskabidean, eta gero ikusten bada

lanpostu bat adjudikatzen ahal zitzaiola betetzen duen posizioagatik eta behar kopuruagatik, ikastetxe horri dagokion eremuko kontratazio-zerrendetatik **kanpo geldituko da**.

Iruñean, 2022ko ekainaren 10ean.

ALDI BATERAKO LANGILEAK
KUDEATZEKO ZERBITZUKO ZUZENDARIA

Isidra Roldán Arróniz